



## Lectio divina

### 1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

### 2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Nolakoa da Jesusekin duzun harremana (gauza asko al dakizu Jesusi burua, hitz egiten al duzu Berarekin buruz buru)? Sumatzen al duzu eguneroko bizitzan Kristo bizi dela eta gure munduan presente dela?
- ✓ Batzuetan, zailago gertatzen da bestek maita gaitzaten uztea, guk norbait maitatzea baino. Uzten al diet besteei ni maitatzen? Uzten al diot Jainkoari ni maitatzen? Kosta egiten al zait Jainkoak maita nazan eta besteek maita nazaten uztea?
- ✓ Jainkoak maite nauela sumatzeak eta jakiteak, konprometitzen al nau senideen zerbitzuan jartzera? Konpromisoz eta erabat emana bizi al dut zerbitzu hori? Ala, agian, ez diot Jesusi utzi nahi oinak garbi diezazkidan, Pedrok egin zuen bezala? «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu Nirekin zerikusirik izango». Ez duzu nire Itxaropenean parte izango.
- ✓ Jainkoaren Maitasunaren dohain dela jakinik bizi dut Eukaristia ala monotoniak eta ohikeriak eragotzi egiten didate sentibera izatea? Ematen al dizkiot eskerrak Jainkoari, Eukaristian bere burua ematen digulako?

### 3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Eska diezaiogun Jaunari beraren Maitasunaren dohaina. Lagun diezagula Berak maita gaitzan uzten. Argi egin diezagula geure zauriak eta ikarak ikusteko, oztopatu egiten baitigute Jainkoaren Maitasunean sakontzen. Utz diezaiogun gu maitatzen! «Hain preziatua baitzara niretzat, biziki estimatzen eta maitatzen zaitut» (Is 43, 4).

Eska diezaiogun Jaunari beraren bihotzaren antzeko bihotzez maitatzen lagun diezagula. Ilunpearen erdian eta itxaropen urria izanik ere, eman diezazkiogun eskerrak Itxaropenari atea irekitzeko modua erakutsi digulako: lagun hurkoa maitatzea. «Maita ezazue elkar Nik zuek bezala» (Jn 13, 34).

### 4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Ebanjelio honek Jesusen honako galderari honi erantzuteko konpromisoan jartzen gaitu: «Nahi al duzu Nik zuri oinak garbitzea?». Hau da, utzi nahi al diozu Jainkoa zu maita zaitzan? Prest al zaude haren maitasunean sakontzeko? Eta zeure bizitza Jainkoaren Maitasunari ireki ahala, prest al zaude lagun hurkoa maitatzeko?

JAINKOA<sup>GAN</sup>  
JARTZEN  
DUT NITZE  
ITXAROPENA

Hitzarekin  
topatuz

2. Fitxa, Jn 13, 1-17

AZKENEAN BETE-BETEAN  
MAITATU ZITUEN  
JAUNA BARNETIK EZAGUTU



Donostiako  
Gotzaindegia  
Obispado de  
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA  
DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN

URTEURRISMA  
ANNIVERSARIO



## Jn 13, 1-17

<sup>1</sup> Pazko-jaija gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiola. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete-betean maitatu zituen. <sup>2-3</sup> Deabruak Simon Iskarioterren seme Judasi sartua zion buruan Jesus saltzeko asmoa. Jesusek bazekien dena bere esku jarri ziola Aitak, eta Jainkoarengandik etorria zela eta Jainkoarengana zihoala.

Afaltzen ari zela, <sup>4</sup> mahaitik jaiki, soingainekoa erantzi eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen. <sup>5</sup> Ondoren, ura konketara bota eta ikasleei oinak garbitzen hasi zen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen. <sup>6</sup> Simon Pedroarengana iritsi zenean, honek esan zion:

–Jauna, zuk niri oinak garbitu?

<sup>7</sup> Jesusek erantzun zion:

–Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen, geroago ulertuko duzu.

<sup>8</sup> Pedrok, berriro:

–Zuk ez didazu sekula niri oinik garbituko.

Jesusek erantzun:

–Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango.

<sup>9</sup> Simon Pedrok esan zion:

–Jauna, orduan, oinak ez ezik, eskuak eta burua ere bai.

<sup>10</sup> Jesusek erantzun:

–Bainatu denak ez du garbitu beharrik, erabat garbi baitago, eta zuek garbi zaudete, baina ez denok.

<sup>11</sup> Izan ere, bazekien zeinek salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi». <sup>12</sup> Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaiian eseri eta esan zion: «Ulertzen duzue egin dizuedana? <sup>13</sup> Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz.

<sup>14</sup> Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri. <sup>15</sup> Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen. <sup>16</sup> «Bene-benetan diotsuet: Ez da morroia nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. <sup>17</sup> Ulertzen duzue hau, ezta? Bada, zorionekoak izango zarete, betetzen baduzue

Nola maita gaitu Jesusek bete-betean? Azken Afarikoan ikusten dugu erantzuna: Eukaristia eratuz eta ikasleei oinak garbituz. Hitz batean, bere bizia emanez gizadiaren alde.

- ✓ Oinak garbitzea esklaboen lana zen. Jesusen bizitza osoa jartzen du agerian zeinu horrek. Ez da apaltasun-zeinu hutsa.
- ✓ Pedroren ezetza: Nor naiz ni Zuk niri oinak garbitzeko? Ematen digun errespetuaz gainera, baliteke Jaunak guri oinak garbitze horrek beldurra ere ematea, konprometitu egiten baikaitu. Guri oinak garbitzeak esan nahi du maite gaituela. Jaunak maita gaitzan uztea gauza oso serioa da, eta guk beste inor maitatu aurretik, Jaunari gu maitatzen utzi behar diogu. Utz diezaigun Jaunari guri oinak garbitzen eta horrek gu sakonki konprometitzen. Gu maitatzen utzi behar diogu Jaunari, maitasun horrek gu eralda gaitzan. Jesusek dio: «Aitak Ni maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet Nik zuek; iraun tinko nire maitasunean». (Jn 15, 9).
- ✓ Zer da maitasuna? «Hau da benetako maitasuna: ez guk Jainkoari izan diogun maitasuna, Berak guri izan diguna baizik [...] Eta guk ezagutu dugu eta sinetsi Jainkoak digun maitasuna. [...] Jainkoak maitatu gintuen lehenik» (1Jn 4, 10.16.19). Beti Jainkoa hasten da gu maitatzen. Aurrea hartzen digu Jainkoak.
- ✓ Agerikoa da Eukaristia eta oinen garbiketa bata bestearekin oso lotuak daudela. Jaunak ematen du bere burua, Jaunak maite gaitu bete-betean. Eta maitasun hori dohainikakoa da erabat: ongi zekien Jesusek ikasleetako baten saldu egingo zuela, beste batek ukatu, gainerakoek bakarrik utziko zutela... Jainkoak ez gaitu maitatzen eman diogunaren ordainetan. Kontenpla dezaigun Jesusen maitasuna; utz diezaigun maita gaitzan.
- ✓ Oinak garbitu dizkie, bai, Jesusek bere ikasleei; baina ez zion uko egin bere egitekoari, ez bere izateari. «Zuen “Maisu” eta “Jauna” deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz». Itxaropenerako bidea erakusten digu.
- ✓ Jesusen agindua argia da. Berak digun maitasunak konprometitu egiten gaitu elkar maitatzeraz: «Nik zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere oinak garbitu behar dizkiozue elkarri». Itxaropena sinesmenean oinarritzen da eta maitasunez janaritzen.



## Textua ulertzeko

- ✓ Maitasunetik sortzen da itxaropena eta Jesus gurutziltzatuaren bihotz zulatuari darion maitasunean oinarritzen da. Kristau itxaropenak badaki ez gaituela inork ere aldenduko inoiz Jainkoaren maitasunetik.
- ✓ Jesusek digun maitasun bete-betekoa dugu geure kontenplazio-gaia. Bazekien Jesusek mundu honetatik Aitagana igarotzeko ordua gainean zuela.

- ✓ Zeinu handi hau egitean, betetasunerako bidea, itxaropenerako bidea, erakusten digu Jesusek. «Hau jakinik, zorionekoak zuek hala egiten baduzue». Maitasunaren eraginak sakonaraziko digu itxaropenean. Utz iezaiozu Jaunari zu maitatzen, zuk besteak maitatu ahal izan ditzazun. Horrela izango zara zorionsu, eta itxaropenean oinarritutako bizitza eramanez ahal izango duzu.